

iritzia

gaurko...

...elkarriketa



Alberto Peñalva
• DISEINATZAILEA •

«Mitoak herri modura ezagutzeko balio dute»

El juguete de Mari liburua idatzi du, Jakue Pascualekin batera, Likiniano argitaletxean.

■ Zein da liburuaren ardatz nagusia?

Egungo gizartearen erreferentziarik eza izan dugu oinarri liburua egiterakoan. Egitura neoliberalen eta pentsamendu bakarraren aurrean, sus-trietara jotzea proposatu nahi dugu. Mitoetara. Geure burua ezagutzeko, herri gisa zer garen jakiteko, mitoak oso garrantzitsuak dira.

■ Zergatik jo duzue mitoetara?

Mendebaldeko pentsamendu zientifikotik oso urrun daudelako. Ekonomia dugunez gure gizartearen gidari nagusia, ezin diogu zientzia izaera eman; sistema hau legiti-matu besterik ez dugu egingo zientzia hor kokatzen badugu. Beraz, bestelako ikuspuntuak aurkitu behar ditugu. Guk mitoetan aurkitu dugu ezberdintasuna.

■ Non aurkitu dituzue zuen iturriak? Zertan oinarritu zarete?

Joxe Miguel Barandiaranen lana eta hark egindako bilduma garrantzitsua izan da, dudarik gabe, baina haren interpretazioak ez zaizkigu oso aproposak iruditzen. Dena dela, ez da batere zaila izan Euskal Herriko mitologiaren berri jasotzea.

Jose Luis Aizpuru
DONOSTIA

...esaera

«Nolako bihotza, halako aurpegia»

...hizpideak

'Ke lainoak' errealitatea faltsutzen duenean

■ Komunikabide batzuek, itxura guztien arabera Espainiako Barne Ministerioak idatzitako gidoia betez, azken asteotan tema handi bezain sinesgaitzarekin iragarria zuten ETArein komunikazioa herenegun gauean iritsi zen, ETBko *Gau:On* saiokoe egindako elkarriketaren formatuan.

Ikusmin faltsu eta oinarri gabeko asko sortu dituzte egunotan komunikabide horiek ETAk adiera zezakeenaz: su-etena behin-behinekotik behin betirako izatera pasatuko zela eta kale borroka gaitzetsi egingo zuela. Ez bata, ez bestea. Askotan leporatu zaion funtzioa betez, Barne Ministerioa ezer baino gehiago komunikazio ministerioa da. Espektatiba handia sortu, eta gero betetzen ez bada, bete ez duenari erago-

tzi errua, mediatioki faktura ordainaraziko dionik egongo da eta. Ondorio hori argi ikusi da elkarriketaren ondorengo hainbat agerpenetan. Su-etenarekin hasitako prozesua oztopatzeko ahalegintan dihardutenen lanaren eraginkortasunaren erakusgarri izan da asteotakoa. Gure pantailetan ikusgai egon den *Ke lainoak* film amerikarrak garbi erakutsi berri du nola osatzen diren errealitate/gezur mediatiakoak.

Erreakzioen artean ez da ustekaberik izan. Alderdi abertzaleek, oro har, bide politikoari eusteko borondatea nabarmendu dute ETArein adierazpenetan. Nahiz gero bakoitzak puntu banatan sakondu duen. Abertzale ez direnek, aldiz, bakeari prezioa jartzea leporatu diote erakunde armatuari.

Operazio iragarria

■ Guardia Zibilak Jarrairen egoitza miatu eta bi gazte atxilotu zituen atzo Nafarroan, zenbait hedabidek plazaratu filtrazioak egiaztatuz. Manuel Garcia Castellon epailearen autoa izan da egoitzaren miaketaren oinarria, eta haren sendotasun juridikoa zalantzan jarri dute. HBren Donostiako egoitzaren miaketa egiteko erabili autoarekin gauza bera gertatu zen, eta Garzonek baliogabatu berri du.

UPN ez dago Parlamentuaren hitza onartzeko prest

■ Euskalerrria Irratia lege baimenik gabe utzi zuen lizentzia banaketa aztertu duen batzordeak prest du bere ikerketen emaitza. Txosten mardula da, eta guztiz agerian uzten du Jose Ignacio Palacios kontseilariak modu irregularrean jokatu zuela.

Txosten hori hilaren 16ko osoko bilkuran egingo du bere Parlamentuak. Formalki onartuko da, beraz, Palacios kontseilariaren dimisioa eta prozesu administratibo

osoa bertan beheara utz dadin eskatzea.

Eskakizun hori aho batez egingo dio oposizioak Sanzen gobernuari. Hala ere, horretantxe geratuko da guztia, eskari hutsean. Izan ere, batzordearen erabakia ez da lotes-lea eta UPNkoek ez dute ikerketaren emaitza onartzeko batere borondaterik erakutsi. «Euren aurkako maniobra politikoaren» argudio merkeari eutsi diote Parlamentuaren hitza ez betetzeko.

...pertsonaiak



RICHARD VIRENQUE • Frantziako txirrindularia auzipetu egin dute iazko Tourrean dopinaren aurka hasitako prozesuaren barruan. Patrick Keil epaileak hartu du bere gain auzia.



DANIEL LANDART • Anaia-zen azken hitzak eleberria plazaratu du, Elkarlanean argitaletxearekin. Euskal mundu zahararen eta gizarte berriaren

arteko etena jartzen du agerian idazleak.



JOSE MARIA SATRUSTEGI • *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariaren 80. zenbakia aurkezteaz gain, 30 urtetan egindako lanaren berri jasotzen duen

aurkibidea erakutsi du euskaltzain nafarrak.

...datua

60.000 bidaiari izango ditu Sondikako aireportuak Aste Santuko oporraldian. Ondorioz erregio mailako abiazio zentrua bilaka daiteke.

...adierazpena

«Herria bizirik dagoen bitartean, musika tresna batzuk desagertu eta berriak sortuko dira»

Juan Mari Beltran
Musikan aditua

... seiko urrea

XABIER OLEAGA

ETA ETBn

Astelehen gauetan ETBk eman zigun berria eta ez ETAk. Erakunde armatuak esanda zeukan, ezaguna zen funtsean, elkarriketan zehar adierazitakoa. Euskal Telebistak, ordea, inoiz ez dio aukerarik eman euskal biztanlegoari ETArein mezua zuzenean ezagutzeko aukerarik. Ez da beti izan telebistaren erabakiz, zeren eta badakit jakin inoiz bertako zuzendaritzeko zenbaitzuek saiatu direla halako elkarriketa lortzen eta ezin izan dutela asmoa burutu. Baina, azken urteetan batez ere, ezina lurretako agintaritzatik zetorren. Egoeraren aldatetarik ahalbidetu du elkarriketa, bai. Eta behin urratsa eman eta gero ez da

unerik egokiena iraganagatik kontuak eskatzeko. Baina elkarriketaren ondoren kazetari talde batek euskal gatazkan prentsak duen eraginaz hitzegin zuen, eta, zalantzarik gabe, ETBk, administrazioko telebista bezala (telebista publikoa beste gauza bat da) badu erantzukizunik une honetako trataera informatiboaren sakoneko desgokitasunetan. Alegia, ETari buruz



hainbeste, hainbestek eta hainbestetan hitzegiten den denok ordaindutako medio horretan erakunde armatuaren hitza zuzenean ezagutzeko aukera (gero ados egoteko ala ez, baina hori berdin zait) hiritargoari orainarte ukatu egin zaio, eta hori ez da egokia.

Aldaketa kontuan hartuta, horra hor ETBri zorionak emateko benetako arrazoia, kazetarien arteko enbidia

aitorpen friboloak alde batera utzita. Barka biezadate telebistako tertulian jardun zuten ofiziokideek, batzuek lagun ere baditute eta.

Orain, jakiteko dago ETArein bake alternatiba ezagutzera emateagatik HBko Mahai Nazionala kartzelan sartu zuen epaileak barrutuko ote dituen, baita ere, erakunde armatuak buruzagiek eskainitako elkarriketa pantailetara eramateko erabakian parte hartu zuten ETBko arduradunak. Ez da hori Maialeni, Josebari, Otermini edo Zarraoari desio diedana, noski. Baina hona hemen nola, beste behin ere, nabarmen geratzen den HBko Mahai Nazionalako kideen kartzeleratzeak suposatzen duen injustizia.